

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

**KONTROL MOZIOA**  
**udal langileen aldarrikapenei buruzkoa**

Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2022ko otsailaren 14an Zerbitzu Orokorreko Batzordean jorratutako interpelazioaren ondorioa da.

**JUSTIFIKAZIOA**

Udalbatzarretan lekuko gara, udal langileek hilabeteak daramatzate salatzen sail gehienetan langile nahikorik ez dagoela eta, gainera, Udal Gobernuaren kudeaketa kaskarrak eragin larria duela euren lan-eskubideetan eta udal zerbitzuen kalitatean.

Batetik, lan-eskubideei dagokienez, denbora luzea daramate lan-gainkarga sufritzen. Eta hori gutxi balitz bezala, murrizketak ezarri zaizkie hainbat arlotan: egutegiak, kontziliazioak, baimenak, ordezkapenak...

Bestalde, zerbitzuari dagokionez, departamentu askotan langile nahikorik ez dagoenez, ezinezkoa zaie sail bakoitzak eskatzen duen lan-bolumenari erantzutea, eta horrek eragin negatiboa du zerbitzuaren kalitatean.

Beraz, langilea kaltetua eta herritarra kaltetua.

Horri guztiari gehitu behar zaio gobernuaren eta langileen arteko negoziazioetan askotan akordiorik gabe bukatzea. Nolabait, gobernu asetuta geratzen da negoziazio prozesua irekitzearekin -hori baita legeak agintzen duena-, badakielako sindikatuekin adostasunik lortu gabe itxi dezakeela.

Baina errealitatea da gobernu honek akordioak lortzeko duen ezintasunak gora egiten duen heinean, udal langile askoren haserrea eta ezinegona ere proportzio berean areagotzen ari direla.

Beraz, argi dago egoera honek premiazko konponbide adostua behar duela inplikaturako eragileen artean: administrazioa eta langileak.

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

Honi guztiari buruzko interpelazioa aurkeztu genuen martxoko batzordean eta zinegotzi delegatuak erantzun zuen Udal Gobernuak sindikatuekin negoziatzen duela dagozkion foroetan. Baina negoziazio horietan askotan akordiorik ez lortzeari dagokionez, hauxe esan zuen: "Bik ez dute adosten batek nahi ez duenean".

Tamalez, ez zuen zehaztu akordiorako borondaterik eza gobernutik edo sindikatuen ordezkarietatik zetorren.

Argi geratu zen, legeak agintzen dion bezala, Udal Gobernuak negoziatzen jarraituko duela. Baina, Udaleko langileen eta sindikatuen hitzetan, akordiorik gabe, prozesu horiek ez dira eraginkorrak izango euren lan-eskubideak bermatzeko eta herritarrek merezi duten kalitatezko zerbitzua emateko.

Hori guztia ikusita, Gobernuaren eta langileen arteko adostasun-foro berriak ezartzeko esfortzua egiteko unea da, arazoa konpondu ahal izateko.

Horiek horrela, sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du:

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari lehenbailehen adostu dezala ibilbide-orri bat Udaleko ordezkari sindikalekin eta Langileen Batzordearekin batera, beharrezkoak diren negoziazio-guneak finka ditzala, eta udal sailen beharren diagnostiko partekatu bat egin ondoren, epe labur, ertain eta luzeko irtenbideak adostu ditzan.

Donostian, 2022ko martxoaren 18an

Reyes Carrere Zabala  
EH Bildu udal taldea